

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Prosposamen honekin, birusaren ondorioz kaltetuak izan diren pertsona gehienei laguntzea da gure helburua. Covid-19ak arazo asko ekarri ditu alor bat baino gehiagotan, adibidez, ekonomian, eta honen ondorioz, jende askok hilabete amaierara iristeko arazoak ditu. Hau guztia kontuan hartuta, gure proiektua garatzerakoan hiru bezero moten bereizketara iritsi gara.

Batetik, lehen bezeroak gure taldeari lehengaiak donatzen dizkien pertsonak izango dira, hau da, laguntza eskaintzen digutenak. Hauek, arropa, janaria... eta aurretik aipatutako beste hainbat lehengai gure eskuetan jartzearekin batera, elkartasun keinu bat egingo dute, gure bezero bihurtzearekin batera. Gure ideiarene barruan dagoen web orriaren erabiltzaile nagusiak ere hauek izango dira. Bertatik, gurekin kontaktatu eta beren nahiaren arabera donazioak egiteko aukera izango dutelako.

Bigarrenik, proiektu hau aurrera eramateko ezinbesteko laguntza emango diguten, Caritas, Cruz Roja eta Zaporeak elkarteek beste bezero talde bat osatuko dute. Elkarrekin hauek, gure donatzaileengandik lortutako lehengaiak jasoko dituzte, eta modu honetan bihurtuko lirateke gure bezero. Beraien lana gure ematen dizkiegun arropa, janari, jostailuak... behar dituzten jendeei banatzea izango da.

Azkenik, gure bezero nagusiak, pandemiak gogor kolpatu dituen herritarrak izango dira. Uste baina gehiago dira egunerokotasunean beharrezkoak diren gauzak eskuratzeko arazo ekonomikoak dituzten familiak, beraz, gure zerbitzuen erabiltzaile bihurtzea hortik irteteko pauso bat izan daiteke. Bezero hauek identifikatzeko, hainbat gabezia kontuan hartuko genituzke, adibidez, arropa beharra, hau lortzeko diru faltagatik. Beste alde batetik jostailu falta, etxeko txikieneen bizitza erosoagoa eta alaiagoa egite aldera, edo baita janari eta diru falta, egurekoko bizitzari normaltasunez aurre egiteko. Honegatik, eguneroko bizitzan aurrera egiteko baliabide faltak dituzten herritarrak izango dira gure bezero nagusiak.